



Beasaingo Udala

**HASIERAKO
ONESPENAREN
AGIRIA.
7 ERANSKINA
EDUKIA.
ERAGIN LINGUISTIKOAREN
EBALUAZIOA.**

Orrial/
Pág.

**DOCUMENTO PARA
LA APROBACIÓN
INICIAL.
ANEJO 7
CONTENIDO.
EVALUACIÓN DE IMPACTO
LINGÜÍSTICO**

Beasaingo Hiria
Antolatzeko Plan
Orokorra (HAPO)

Plan General de
Ordenación Urbana
de Beasain (PGOU)

SABA I arkitektoak

EKAIN

araudi
zirkulartza juridikoa
lurralde planifikatza
ingurumena

Noviembre 2021ko azaroa.

ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA.

1. GALDETEGI LABURRA.

Beasainen eraikitzea aurreikusita dagoen etxebizitza kopuruak biztanleriaren hazkundera ekarriko luke; eta, beraz, eragina izango luke tokiko biztanleriaren kopuruan. Ondorioz, arrazoizkoa da prebentzio ikuspegitik izan dezakeen eragina neurtzea.

Bestetik, hitzun komunitatearen harreman sareetan aldaketarik aurreikusten ez bada ere, herri barruko biztanleen mugimenduak gertatuko direla aurreikusten da orokorrean



Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

1. PLANAREN/EGITASMOAREN GAINEKO DATUAK

Eremua	BEASAIN
Udalerrria ez den eremuaren izena	
Planaren/Egitasmoaren izena	HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaz arduratuko den batzordearen izena	Sabai arkitektoak. HAPOn hasierako onespenerako

2. GALDETEGI LABURRA

GALDERA	BAI/EZ	AZALPENA
1. Planak/egitasmoak izango du eraginik tokiko biztanleria kopuruan? (etxebizitzak eraikiko direlako, lanpostuak sortuko delako...)	BAI	1.654 biztanle berri aurreikusten da etxebizitza beharraren arabera HAPON
2. Planak/egitasmoak izango al du eragin nabarmenik tokiko bisitari kopuruan? (aisialdi guneak eraikiko delako, zerbitzuak sortuko direlako, lanpostuak ugarituko direlako...)	BAI	186 bisitari berri ekipamendu berriak aurreikusten direlako HAPON
3. Planak/egitasmoak egoera soziolinguistikoa beste era batera eragin nabarmenik izango du?	EZ	Ez da eraginik ikusten

2. BILAKAERA INDIZEA.

Euskararen ezagutzaren bilakaera eta hauskortasun indizearen arteko uztarketatik sortzen da indize hau. Herri batek zenbat eta hauskortasun indize altuagoa izan, esan nahi du orduan eta gaitasun gutxiago izango duela euskararen ezagutza izango den inpaktuari aurre egiteko. Bi indizeren batuketaren emaitza da: Hauskortasun Indizea eta Euskararen Proiektzio Indizea.

3. HAUSKORTASUN INDIZEA.

Euskararen ezagutzaren bilakaera eta hauskortasun indizearen arteko uztarketatik sortzen da indize hau. Hauskortasun indizearen helburua da edozein esku-hartzek eragin eremuaren egoera soziolinguistikoa zer-nolako neurrian hauts dezakeen neurtzea. Indizea aldagai hauez osatuta dago: biztanle kopurua, euskaldunen ehunekoa, euskara lehen-hizkuntza duten pertsonen ehunekoa, etxean euskaraz egiten duten pertsonen ehunekoa, UEMako udalerrak eta Euskara sustatzeko dauden planak e.a. Aldagai bakoitzaren eskala egin da, eta tarte bakoitzari puntuazio bat eman zaio.

Indizea 2 eta 18 puntu artekoa izan daiteke. Puntuazioaren arabera lau tarte ezarri dira: Hauskortasun oso handia, Hauskortasun handia, Hauskortasun ertain eta Hauskortasun txikia

Beasainen Hauskortasun indizea 7koa da.



Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

		Eremua	BEASAIN
		Planaren/Egitasmoaren izena	HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
		Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaz arduratuko den batzordearen izena	Sabai arkitektoak. HAPOren hasierako onespenerako
		Oharrak	
Guztira	13.802		
Euskaldunak - Guztira%	59,05		
Ama-hizkuntza euskara - Guztira%	35,46		
Etxean erabiltzen den hizkuntza - Guztira%	27,05		
Euskara Zerbitzua	EZ		
ESEP	EZ		
Faktorea biztanle kopurua	2,00		
Faktorea Euskaldunak	2,00		
Faktorea Lehen hizkuntza	1,00		
Faktorea Etxeko hizkuntza	0,00		
Faktorea Euskararen inguruko egituraketa	4,00		
Hauskortasun indizea	7,00		
Hiren eraginaren balioa	1,00		
Euskararen proiektzio indizea	-2,00		
Bilakaera indizea	-1,00		
TXOSTENA EGIN BEHARRA - IZAERA		HIZKUNTZA INPAKTUKO AZTERLANA BAI	

4. EUSKARAREN PROIEKZIO INDIZEA.

Azterketa egitean eskuratutako datuen arabera, Beasainen etxebizitza berriak eraikitzeagatik 1.654 pertsona etorriko direla kalkulatu da. Etxebizitza bakoitzera bataz beste 2,54 pertsona joango direla aurreikusi da. Kalkulu hori egiteko HAPOren memoriaren 145 orrian (11.5 atala) justifikatu da.

Honez gain, egunero 186 bisitari berri aurreikusten da beraz, egoera linguistikoaren eragina aztertzeko 1.840 pertsona bisitari edo bizitzeko etorriko direla kontuan hartuko dugu.

Bizitzera eta bisitatzen etorriko diren pertsonen jatorria kontuan hartuta 773 euskaldunak izango direla aurreikusi da, eta 1.067 erdaldunak. Horren arabera, euskararen proiektzio indizea -2,00koa litzateke.

5. ERAGIN LINGUISTIKOAREN INTENSITATEAREN EBALUAZIOA.

Hizkuntza inpaktuko azterlana egiteko aplikazioaren ELE galdetegia erantzunez kalkulatu da Eragin Linguistikoaren intentsitatea. Ondoren, agertzen den taulan jasota dago.

Etxebizitzaren eraikuntzaren eragina, oro har, moderatua izango litzateke Beasainen. Dena dela, gune jakin batzuetan, Trenbide Zabalgunea eraikinean batez ere, intentsitate ertaineko eragina izango luke komunitatearen kultur eta gizarte bizitzan.

Eraikin horietan, ezagutza gutxitzearen ondorioz, eta bizilagun berriek izan ditzaketen hizkuntza ohituren ondorioz, euskararen erabileran intentsitate baxuko eragina izango luke proiektuak.

Ugartemendiko sektorean egingo diren alokairuzko etxebizitzetan, herriko gazteak joango direla aurreikusten da. Eta, gazteen artean, lehen hizkuntza euskara dutenak ere izango direnez, eragina baxua izango da. Dena den, egoera horiek ahalik eta kalte txikiena egiteko eta hizkuntza ohitura aldaketarik egon ez dadin, neurri zuzentzaileak ezarri beharko lirateke.

Hizkuntza paisaia, zerbitzuen komunikazioan eta eskaintzan eragina baxua izango litzatekeela aurreikusi da eta, eragin hori eraikuntza garaian nahiz ondoren nabaritu litzatekeela. Bukatzeko, zerbitzuen eskaintzan eragin baxua izango luke, etxebizitzaren inguruan zerbitzu berriak ezartzea aurreikusten delako.



Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Eremua	BEASAIN
Planaren/Egitasmoaren izena	HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaz arduratuko den batzordearen izena	Sabai arkitektoak. HAPOren hasierako onespenerako

Euskararen Proiektzio Indizea	
Biztanleen kopurua gaur egun	13.802
Euskaldunak gaur egun kopurutan	8.150
Euskaldunak gaur egun %	59,05 %
Biztanle/bisitari berrien kopurua	1.840

BIZTANLE/BISITARI BERRIEN JATORRIA	PORTZENTAJETAN	KOPURUTAN
Araba	0,48 %	9
Bizkaia	1,02 %	19
Gipuzkoa	70,84 %	1.303
Estatuko gainontzeko lurraldeak	15,18 %	279
Atzerrikoak	12,48 %	230
DENETARA	100 %	

EUSKARAREN EZAGUTZA JATORRIAREN ARABERA					
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Estatuko gainontzeko lurraldeak	Atzerrikoak
Euskaldunak %	28,54 %	36,61 %	57,37 %	5,00 %	1,00 %
Besteak %	71,46 %	63,39 %	42,63 %	95,00 %	99,00 %
Euskaldunak	3	7	748	14	2
Besteak	6	12	556	265	227

BIZTANLE/BISITARI BERRIEN KOPURUA EZAGUTZAREN ARABERA

Biztanle/Bisitari berrien kopurua	Etorriko diren erdaldunak	Etorriko diren euskaldunak
1.840	1.067	773

EUSKARA EZAGUTZA TASAK (ORAINGOAK ETA GEROKOAK) ETA KONPARAKETA

Biztanle/bisitari berriak + ohikoak	Biztanle/bisitari euskaldun ohikoak + berriak	Biztanle/bisitari euskaldun ohikoak + berriak %	Euskaldunen % gaur egun	EPI%	EPI
15.642	8.923	57,05 %	59,05 %	-2,00 %	-2,00



Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

	BAI/EZ	+ -	INTENTSITATEA	BALIOA	AZALPENA
1. Komunitatearen kultur eta gizarte bizitzan (harreman sareak aldatzea, harreman ohiturak aldatzea, kultur espresioak aldatzea, elkargune berriak sortzea, kultur agenda aldatzea)					
1.1 Eragina proiektua egiten ari den artean					
1.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ			0	
1.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da	BAI	-	BAXUA	1	
1.2. Eragina proiektua egin eta gero.					
1.2.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ			0	
1.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	BAI	-	ERTAINA	6	
1.3. Eragina noizbehinkakoa izango da.	EZ			0	
1.4. Eragina etengabekoa izango da.	BAI	-	BAXUA	2	
				9	ERTAINA
2. Tokiko euskararen ezagutzan					
2.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
2.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ			0	
2.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	EZ			0	
2.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
2.2.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ			0	
2.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	BAI	-	BAXUA	3	
2.3. Eragina noizbehinkakoa izango da.	EZ			0	
2.4. Eragina etengabekoa izango da.	BAI	-	BAXUA	2	
				10	BAXUA
3. Tokiko euskararen erabileran.					
3.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
3.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ			0	
3.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	BAI	+	BAXUA	-1	
3.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
3.2.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ			0	
3.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	BAI	-	BAXUA	3	
3.3. Eragina noizbehinkakoa izango da.	EZ	-		0	
3.4. Eragina etengabekoa izango da.	BAI	-	BAXUA	2	
				12	BAXUA
4. Hizkuntza paisaia					
4.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
4.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	BAI	-	BAXUA	0,5	
4.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	EZ			0	
4.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
4.2.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	BAI	-	BAXUA	2	
4.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	EZ			0	
4.3. Eragina noizbehinkakoa izango da.	BAI	-	BAXUA	1	
4.4. Eragina etengabekoa izango da.	EZ			0	
				3,5	BAXUA

5. Zerbitzuen/ jardueren/ egitasmoen komunikazioetan					
5.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
5.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	BAI	-	BAXUA	0,5	
5.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	EZ			0	
5.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
5.2.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	BAI	-	BAXUA	2	
5.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	EZ			0	
5.3. Eragina noizbehinkakoa izango da.	BAI	-	BAXUA	1	
5.4. Eragina etengabekoa izango da.	EZ			0	
				3,5	BAXUA
6.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
6.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ			0	
6.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	EZ			0	
6.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
6.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektua garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	BAI	-	ERTAINA	4	
6.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	EZ			0	
6.3. Eragina noizbehinkakoa izango da.	EZ	-		0	
6.4. Eragina etengabekoa izango da.	BAI	-	BAXUA	2	
				6	BAXUA
Eragin Linguistikoaren Intentsitate Puntuazioa				44	GARRANTZI GUTXIKOA

6. FUNTSEZKO ALDERDIEN GALDETEGIA: ETXEBIZITZA PUBLIKOAK.

Funtsezko alderdien azterketaren helburua proiektuak hizkuntzari lotutako alderdiak jasotzen dituen edo ez aztertzea da. Funtsezko alderdien azterketan, etxebizitza, espazio ireki eta hizkuntzari lotutako funtsezko alderdiak aztertzen dira jarraian.

Aurreikusi diren etxebizitzak herritarren beharretara egokitutakoak dira. Etxebizitzak eskuratzeko herrian erroldatuta egon beharko da, beraz, herritarren etxebizitza beharrak asetzea du helburu proiektuak. Etxebizitzak herriko hainbat gunetan barreiatuta daude eta zerbitzuetatik zein ekipamenduetatik gertu daude. Bizilagunak elkarrekin harremanetan jartzeko aukera izango da hainbat etxebizitzatan. Etxebizitzak bi alditan egingo dira, beraz, denborak luzatzeko neurriak jasotzen ditu proiektuak. Hizkuntza irizpideei dagokionez, Udalak bere irizpideak baditu ere, planean ez dago ez jasota, beraz, neurri zuzentzaileetan sartzea komeni da.

7. FUNTSEZKO ALDERDIEN GALDETEGIA: ETXEBIZITZA LIBREAK.

Trenbidearen Zabalgunean eta Araingoitiko arean aurreikusitakoa izan ezik, 2007ko Arau Subsidiarioek, eratorritako hirigintza-jarduketak garatzea aurreikusten da. Planen eta proiektuen ekintza exekutiboak etxebizitza kopuru handia eraikitzea ahalbidetu zuen, alde batetik 1998-2008 zikliko "bomm" ekonomikoak lagunduta eta, bestetik, Beasaingo ekonomiaren indarra bera, enplegu tasa-haundia baitu gainerako udalerriekin alderatuta. Hori guztia merkatu librearen arauetan, hor kokatzen baitira eskaintzan eta eskaria oinarritutako merkataritza-transakzioak, hau da, etxebizitzaren merkatu-prezioa.

Etxebizitza libreei dagokionez, etxebizitzen prezioak herritar guztien beharretara egokitzen ez badira ere, bai, bertako askoren eros ahalmenera, eta horrek bertako ezagutza-tasa horrenbeste

ez jaitea eragiten du. Gainera, kontutan izan behar da dagoeneko etxebizitza asko salduta daudela. Etxebizitzak saldu ahala eraikitzen joateko aurreikuspena dago. Espazio publikoak egotea aurreikusten da Komunitate bizitzan positiboki eragingo dutenak. Oinezko sareak eta zerbitzua ere aurreikusita daude etxebizitzetatik gertu. Etxebizitzaren beheko solairuetan lokal komertzialak egongo dira eta bat zabalera handikoa izango da, horrek hainbat zerbitzu irekitzeko aukera eskainiko du. Bestetik, hizkuntza irizpideei dagokionez, Udalak bere irizpideak baditu ere, planean ez dago ez jasota, beraz, neurri zuzentzaileetan sartzea komeni da.

8. ONDORIOAK.

Beasaingo HAPO indarrean dagoen aldian eraikiko diren etxebizitzek euskararen bilakaeran garrantzi gutxikoa eragina izango dute.

Etxebizitza publikoen kasuan, herrian bi urtez erroldatuta egotea eskatuz gero, etxebizitza bakoitzeko kide bat gutxienik beasaindarra izango dela ziurtatzen da. Gainontzeko kideen jatorria aurreikusteko, orain arteko migrazio mugimenduen datuak hartu dira kontuan.

Etxebizitza libreen kasuan, orain arte eraiki diren etxebizitza blokeak hartu dira erreferentzia moduan, proiektio osoa egin ahal izateko. Datu horiek erakusten dute, jendea herritik bertatik, edota inguruko herrietatik etorriko dela ehuneko handi batean.

Etxebizitza publikoei dagokienez, eragin linguistikoaren intentsitatea garrantzia gutxikoa izango litzateke.

Etxebizitza libreen kasuan, euskararen ezagutza eta erabileran eraginik ez duela izango aurreikusten da. Orain arteko erroldak erakusten baitute bertakoek eta ingurukoek erosi dituztela etxeak kopuru handi batean. Eragina izatekotan eraikuntza garaian nabaritutako litzateke. Horregatik garrantzitsua izango da hizkuntza irizpideak ezartzea fase honetan. Bestetik, hizkuntza paisaia, eskaintza eta komunikazioei dagokienez, eragina izan dezakeela aurreikusi da. Trenbidearen Zabalgunean eta Ugartemendi sektorean ondoko etxeen azpialdean lokal komertzialak irekitzeko aukera egongo da. Hori horrela, euskararen presentzia bermatzeko, esku hartzeak egiteak garrantzia berezia izango du.

Funtsezko alderdietara jota, etxebizitza publikoen planean hainbat alderdi jada aurreikusita daude: herritarren etxebizitza beharrak asetzea, eraikuntza denboran luzatzea, zerbitzuak etxebizitzetatik gertu egotea, besteak beste. Hizkuntza irizpideei lotutako neurri zuzentzaile zein aringarriak planean esplizituki sartzea faltako litzateke. Udalak berak hizkuntza irizpideak eta euskara sailetik hainbat neurri aringarri lantzen baditu ere, horiek planean ez daude sartuta, beraz, horiek sartzea gomendatuko du txosten honek.

Etxebizitza pribatuei dagokienez, etxebizitzaren prezioak herritar guztien beharretara egokitzen ez bada ere, bai bertako askoren eros ahalmenera, eta horrek bertako ezagutza-tasa ez horrenbeste ez jaitea eragiten du. Gainera, kontutan izan behar da dagoeneko etxebizitza asko salduta daudela. Etxebizitzak saldu ahala eraikitzen joateko aurreikuspena dago. Espazio publikoak egotea aurreikusten da komunitate bizitzan positiboki eragingo dutenak. Oinezko sareak eta zerbitzua ere aurreikusita daude etxebizitzetatik gertu. Etxebizitzaren baxuetan lokal komertzialak egongo dira eta bat zabalera handikoa, horrek hainbat zerbitzu irekitzeko aukera eskainiko du. Bestetik, hizkuntza irizpideei dagokionez, Udalak bere irizpideak baditu ere, planean ez dago ez jasota, beraz, neurri zuzentzaileetan sartzea komeni da.



Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

ETXEBIZITZA						
Etxebizitzak eraikiko diren kasuetan betetzekoa						
IZAERA						
FUNTSEZKO ALDERDIAK			BALORAZIOA			
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
1	Etxebizitzen batez besteko kostua herritarren beharretara egokitutakoak al dira?	BAI			ETXEBIZITZEN %43 BABES SOZIALEKO ALA TASATUAK DIRA. GAINONTZEKOAK LIBREAK, BEASAIN-ORDIZIA-LAZKAOKO BIZTANLEEK MERKATUKO PREZIOEI ERANTZUN AHAL IZATEKO.	Euskararen ezagutza-tasa horrenbeste ez jaitea lortzen da, herrikoak bertan geratzeko aukera sustatuta, hazkuntza txikiagoa izango litzatekeelako.
2	Etxebizitzetatik oinarritzko zerbitzu eta ekipamenduak aise iristeko moduan egotea sustatzen al du?	BAI			ZERBITZU ETA EKIPAMENDU BERRIAK AURREIKUSTEN DIRA. TRENBIDEAREN ZABALGUNEAREN ANTOLAKETAK EZ DU SUPOSATZEN HIRI-BILBEAREN ALDAKETA, GUNE BERRI BATEN ITXURA HARTZEN DUELAKO.	Komunitatearen gizarte bizitza aberasten du eta, ondorioz, erabilera areagotzen du
3	Elkarbizitzarako espazio irekiak aurreikusten al dira etxebizitzetatik gertu?	BAI			TRENBIDEAREN ZABALGUNEAN BATEZ ERE, PUBLIKOA ERABILTZEKO GUNE BERRI BAT SORTZEN DELAKO.	
4	Etxebizitza-eraikin berrietan, bizilagunek elkar ezagutzeko eta elkarrekin harremanetan jartzeko, atari bakoitzeko bizilagun-kopurua zaintzea edo mugatzea aurreikusi al da?	EZ			EZ. EZ DAGOKIO, ZEHAZTEN EZ DELAKO HAPON	
DIMENTSIOA						
FUNTSEZKO ALDERDIAK			BALORAZIOA			
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
5	Herriaren hazkuntza jasangarria izatea jasotzen al da helburuen artean?	BAI			EZ DA AGORTZEN, LURRALDE ANTOLAMENDURAKO GIDALERROETAN ADIERAZTEN DEN ETXEBIZITZEN GEHIENEZKO AHALMENA	Euskararen ezagutza-tasa horrenbeste ez jaitea lortzen da, herrikoak bertan geratzeko aukera sustatuta, hazkuntza txikiagoa izango litzatekeelako.
6	Etxebizitzak eskuratzeko lehentasuna herritarrek izateko neurriak hartzea proposatzen al da?			EZ DAGOKIO	EZ DAGOKIO HAPORi, BABES SOZIALEKO ETXEBIZITZAK SUSTAPENARI DAGOKIONA IZAN EZIK.	
7	Etxebizitzen eraikuntza denboran luzatzeko neurriak jasotzen al dira?	BAI			HAZKUNDE NAGUSIA, BIGARREN LAURTEKO AURREIKUSTEN DELAKO	Jende etorrera asimilatzeak aukera lortzen da
LEKUKOTZEA						
FUNTSEZKO ALDERDIAK			BALORAZIOA			
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
8	Etxebizitzak herriko eremu ezberdinetan egitea aurreikusten al da?	BAI			11 LEKU DESBERDINETAN AURREIKUSTEN DIRA SUSTAPENAK. HALA ERE GARAPEN HANDIENA TRENBIDEAREN ZABALGUNEAN AURREIKUSTEN DA (BI HEREN), EREMUA ERE HANDIA DELAKO.	Eraginaren intentsitatea baxuagoa izatea lortzen da

ESPAZIO PUBLIKO IREKIAK						
Eraberritu edo berriak eraikiko diren kasuetan betetzekoa						
IZAERA						
FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
9	Espazio publiko irekiak erakargarriak, aise iristeko modukoak eta erabiltzeko modukoak bultzatzen al dira?	BAI			GAUR EGUNGOKOAK INDARTZEN DIRA. HANDITZEKO, BERRESKURATZEKO ETA HOBETZEKO EKINTZAK AURREIKUSTEN DIRA HAPOn	Gizarte kohesioa eta kultur bizitza areagotzen du eta ondorioz, erabilera areagotzen du
10	Oinezko sareak aurreikusi al dira?	BAI			GAUR EGUNGOKOAK DIRENAK BATEZ ERE.	
11	Espazio publikoen arteko harremana egotea kontuan hartu al da?	BAI			ORIA IBAI ONDOKO IBILBIDEA	
12	Espazio publiko irekiei askotariko erabilera ematea aurreikusten al da?	BAI			ONDORIZTATZEN ESPAZIO PUBLIKOAK ERA ANITZEAN ERABILIKO DIRELA SUPOSATZEN DELAKO.	Ezaugarri ezberdinetako pertsonak elkarrekin egotea sustatzen du eta gizarte kohesio eta elkarbizitza hobetzen du, erabilera areagotuz
13	Espazio publikoetan adin nahasketa ematea aurreikusten al da? Haur zein helduek erabili ahal izateko guneak egotea?			EZ DAGOKIO	PLANGINTZARI EZ DAGOKIO. URBANIZAZIO PROIEKTUETAN ETA SUSTATZEKO LEHIAKETETAN HARTU BEHARREKO ERABAKIAK DIRELAKO.	Gizarte kohesioa sustatzeaz gain, hizkuntzaren zein kulturaren transmisioa ematea sustatzen du
DIMENTSIOA						
FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
14	Tokiko beharretara neurritutako espazio publikoak aurreikusi al dira	BAI			BAITA EBALUATU EGIN DA ERE ESPAZIO LIBREEN ESTANDARRA AREAZ AREA.	Erabiltzaileen hazkuntza jasangarria izaten laguntzen du eta, ondorioz, erabilerari modu xumeagoan eragiten dio
LEKUKOTZEA						
FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
15	Ekimenak garrantzi naturala, historikoa edota kulturala duten lekuak babesten edo hobetzen al ditu?	BAI			DONEJAKUEKO BIDEARI LOTUTAKO IBILBIDEEN, SAGASTIGUTI PARKEAREN EDO IGARTZAKO EREMUAREN EZAUGARRIAK ARLO DEZBERDINEN IZAERARI ERANTZUTEN DUTE.	Bertako ondarea zaintzen du, bertako kultura, hizkuntza, natura, historia aintzat hartuta
16	Espazio publiko irekiak beste instalazio batzuk ditu inguruan, adibidez, dendak, liburutegia, kultur etxea, ikastetxeak eta gizarte kohesioa sustatzeko komunitate-zentroak?	BAI			OROKORREAN BAI. HALA ERE DENETATIK DAGO. SAGASTIGUTI ETA UBIOTZ ERDIGUNEKO ZERBITZUTIK URRUN DAUDE	Gizarte kohesioa eta kultur bizitza areagotzen du eta, ondorioz, erabilera areagotzen du
17	Espazio publiko irekiak eremu askotan dispersatzea aurreikusten al da?		EZ		KASU BATZUETAN HIRIGINTZA AREEK, BERE IZAERAGAITIK, EZ DUTE ESPAZIO PUBLIKORIK ALA URRIAK DIRA.	
OINARRIZKO EKIPAMENDUAK						
Eraberritu edo berriak eraikiko diren kasuetan betetzekoa						
IZAERA						
FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				

		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
18	Ekimenak hezkuntzarekin, osasunarekin, gizarte-zerbitzuekin, kirolarekin edo kulturarekin lotutako oinarrizko ekipamenduen erabilera sustatzen al du?			EZ DAGOKIO	EKIPAMENDUEN ERABILERA SUSTATZEA EZ DAGOKIO HIRIGINTZA PLANGINTZARI.	Gizarte bizitza eta kultur bizitza sustatzen du. Herritarren integrazioa ahalbidetzen dute.
19	Kultura, kirola, hezkuntza zerbitzuak eskaintzen dituen eraikinen kudeaketa publikoa izango al da?	BAI			HAPOK EZ DU PROPOSATZEN EKIPAMENDUEN EGUNGO KUDEAKETA ETA JABEGOAREN ALDAKETARIK. PROPOSATZEN DIREN BERRI GUZTIAK JABEGO ETA ERABILERAREN PUBLIKOAK DIRA	Udalaren hizkuntza irizpideak ezartzen dira
20	Pribatua izanez gero udalarekin hitzarmenak egitea aurreikusten al da?			EZ DAGOKIO	EZ DIRA AURREIKUSTEN EKIPAMENDU PRIBATUEN KUDEAKERATEN INGURUKO ARAURIRIK	Udalarekin hizkuntza irizpideak adosten dira
DIMENTSIOA						
	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
21	Tokiko beharretara neurriratutako ekipamenduak aurreikusi al dira?	BAI			OROKORREAN LURRALDE PLANGINTZAN AURREIKUSIAK DAUDE	Erabiltzaileen hazkuntza jasangarria izaten laguntzen du eta, ondorioz, erabilera zein ezagutza tasari modu xumeagoa eragiten dio
LEKUKOTZEA						
	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
22	Ekipamenduak beste ekipamendu osagarri batzuetatik gertu daude eta denen koordinazioa, eraginkortasuna eta gizarte-kohesioa ahalbidetzen duen sareaosatzen dute?	BAI			BEASAINGO HIRIGUNEAN DAUDEN ETA PROPOSATZEN DIREN EKIPAMENDUAK HIRI-BILBE BAT OSATZEN DUTE	Ekipamenduen erabilera sustatzen du eta, ondorioz, gizarte integrazioa eta erabilera areagotzen du

JARDUERA EKONOMIKOA						
Industriguneak, lanpostuak ugarituko direnean betetzeko:						
IZAERA						
FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
23	Ekimenak tokiko lan-aukerak sustatzen al ditu?	BAI			TOKIKO ESKAINTZA-ESKARIARENA MENPE EGONGO DA BETI. ETA HORI EZ DAGOKIO HIRIGINTZARI. PROPOSATZEN DIREN EKINTZAK EGUNGO LAN-AUKERAK EUSTEARI BIDERATUAK DIRA.	Bertakoei lanean geratzeko aukera eskaintzen die, eta, ondorioz, langileen euskararen ezagutza eta erabilerari modu xumeagoan eragiten dio
24	Sortuko diren lanpostuak bertakoek betetzeko neurriak ezartzen al ditu helburuen artean?			EZ DAGOKIO	HAPOK EZ DU KALIFIKATZEN JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LUR BERRIRIK	
25	Helburuen artean askotariko enpleguak lortzeko aukerak sustatzea al dago?			EZ DAGOKIO	EZ DAGOKIO HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI	
26	Herritar-talde guztientzako lan aukerak bultzatzen al ditu?			EZ DAGOKIO	EZ DAGOKIO HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI	
27	Helburuen artean, tokiko enpleguarekin lotutako prestakuntza sustatzea jasotzen al du?			EZ DAGOKIO	EZ DAGOKIO HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI	
28	Ekonomia aniztasun handiagoa egotea bultzatzen al du?	BAI			BIGARREN SEKTOREKO JARDUERAK EUSTEA ETA MERKATARI TXIKIAREN ETA HURBILEKO EKONOMIAREN ALDEKO APOSTUA EGITEN DA HAPOn	
DIMENTSIOA						
FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
29	Tokiko beharretara neurriratutako lanpostuak sustatuko al dira?	BAI			USTE DA BAIETZ	Tokiko lan beharrei erantzuten die eta aldi berean kanpoko langile kopurua neurriratzeak ezagutza tasari positiboki eragiten dio
LEKUKOTZEA						
FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
30	Enpresa berriak eraikiko badira euskararen hauskortasun txikiko gunean izatea aurreikusi al da?			EZ DAGOKIO	EZ DAGOKIO HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI	Eraginaren intentsitatea txikitzen du

JARDUERA SOZIOKULTURALA						
Kulturarekin, turismoarekin lotura duten ekimenak aurrera eramango diren kasuetan betetzekoa						
IZAERA						
FUNTSEZKO ALDERDIAK			BALORAZIOA			
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
31	Bertako kultura, hizkuntza, ohiturak sustatzea jasoko al du helburuen artean?	BAI			HAPoren MEMORIAN AZALTZEN DA 11.5 ATALEAN. EUSKARAREN BILAKAERAREN BEHATOKI BAT JARTZEA ETA EUSKARAREN ONDARE-BALIOA INDARTZEA HELBURU BAT DA HAPOn	Bertako kultura, hizkuntza eta ohiturak sustatzen ditu eta prestigiatzen ditu
32	Erabiliko diren irudi leloak bertako ezaugarriei lotutakoak izatea sustatuko al du?			EZ DAGOKIO	EZ DAGOKIO HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI	Bertako izaera indartzen, prestigiatzen du
33	Ekimenak bertako kultur sorkuntza sustatzea izango al du helburuen artean?	BAI			ZUZKIDURA PUBLIKOKO ESPAZIOEN BARRUAN ESKALA TXIKIKO IRAKASKUNTZA-ZENTROAK PROPOSATZEN DA.	Bertako kultur erreferenteak indartzen ditu
DIMENTSIOA						
FUNTSEZKO ALDERDIAK			BALORAZIOA			
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
34	Bisitari kopuru jasangarria jasotzea sustatuko al du?	BAI			EZ DA BISITARIEN HAZKUNDE HANDI BAT AURREIKUSTEN. HALA ERE GERTAEZ GERO, ERAGINA BAIZKOA IKUSTEN DA.	Erabilera eta ezagutza tasari modu xumeagoan eragiten dio
LEKUKOTZEA						
FUNTSEZKO ALDERDIAK			BALORAZIOA			
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
35	Jarduerak bisitariak hauskortasun txikiko gunean jasotzea aurreikusten al du?			EZ DAGOKIO	BIZITARI BERRIAK PROPOSATZEN DIREN ZERBITZU BERRIEN FUNTZIOAN DIRA. EZ ALDERANTZIZ.	Intentsitate maila baxuagotzen laguntzen du
HIZKUNTZARI LOTUTAKO FUNTSEZKO ALDERDIAK						
HIZKUNTZA IRIZPIDEAK						
FUNTSEZKO ALDERDIAK			BALORAZIOA			
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
36	Jardueraren/proiektuaren exekuzio faserako hizkuntza irizpideak ezartzea aurreikusi al da? hizkuntza paisaiari lotutakoak, langileen euskara ezagutzari lotutakoak, komunikazio hizkuntzari lotutakoak, hizkuntzaren erabilerari lotutakoak...			EZ DAGOKIO	EZ DAGOKIO HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI. OROKORREAN PROIEKTU ZEHATZ BAT SUSTATZEN DUEN SAILARI DAGOKIO	Egoera soziolinguistikoari kalterik egingo ez diola bermatzen da
37	Jardueraren/proiektua garatu eta gero inguru berri horretarako hizkuntza irizpideak ezartzea aurreikusi al da? hizkuntza paisaiari lotutakoak, toponimiari lotutakoak, komunikazio hizkuntzari lotutakoak, hizkuntzaren erabilera eta ezagutzari lotutakoak...			EZ DAGOKIO	EZ DAGOKIO HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI. NOLANAHI ERE, IZAERA SOZIOLINGUISTIKOKO UDAL-ORDENANTZAKOAK IZAN DAITEZKE.	
NEURRI OSAGARRIAK/ARINGARRIAK						
FUNTSEZKO ALDERDIAK			BALORAZIOA			
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
38	Kaltea murrizteko neurri osagarri edo aringarriak	BAI			OROKORREAN HAPOn EUSKALDUNTZEKO ZERBITZUAK	Proiektuaren/jardueraren eraginez sortutako

aurreikusi al dira? Etorri berriak euskalduntzeari begirakoak, etorri berrien integrazioari begirakoak, euskara planak garatzeari begirakoak, ziurtagiriak eskaintzea, itzulpen zerbitzuak, irizpideak betetzen ez direnerako isunak...			AURREIKUSTEKOAREN AITORPENA EGITEN DA.	kaltea murrizten da
---	--	--	--	---------------------



Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

PROIEKTUAREN/JARDUERAREN IZAERARI LOTUTAKOAK	PROIEKTUAREN/JARDUERAREN DIMENTSIOARI LOTUTAKOAK	PROIEKTUAREN/JARDUERAREN LEKUKOTZEARI LOTUTAKOAK	HIZKUNTZA IRIZPIDEEI LOTUTAKOAK	NEURRI OSAGARRIAK/ARINGARRIAK
Proiektuaren izaera eremu horretarako garapen sozioekonomiko eta soziokulturalera moldatzea. Adibidez, familia bakarreko edo dorre itxurako etxebizitzak beharrean, ingurura egokitutakoak egitea.	Proiektuaren tamaina murriztea (Etxebizitzaren kasuan, auzo/herri/eskualdearen beharretara neurritzea hazkundera.)	Ezagutzen eragin kaltegarri txikiagoa izan dezan lekualdatzea	Etxebizitza eskuratzeko bertakoei lehentasuna ematea	Herritarren ahalduntze linguistikoa eta formazioa landu.
Biztanle berrien integrazioarako egiturazko neurriak: auzo/etxebizitzaren antolaketa eta egitura biztanle berrien integrazioarako moldatu (bertako herritarrekin harremanak garatzeko espazioak, gune komunitarioak, etxebizitzaren sarbidea oinezkoen espazioetatik, ...)	Proiektuaren iraupena denbora luzatzea (etxebizitza guztiak aldi berean egin beharrean, fase desberdinetan egitea)	Proiektu guztia leku berean garatu ordez, eremu desberdinetan dispersatzea	Herriko langileei lehentasuna ematea	Aisialdiko (kirol eta kultur) eskaintza garatzea.
Ekimenak hezkuntzarekin, osasunarekin, gizarte-zerbitzuekin, kirolarekin edo kulturarekin lotutako oinarriko ekipamenduen erabilera sustatzea	Proiektuaren tamaina murriztea	Erabilera eragin kaltegarri txikiagoa izan dezan lekualdatzea	Proiektuaren iragarkiak tokiko eta euskarazko hedabideetan egitea lehenetsi	Etorri berrientzat, integrazioarako neurriak (hezkuntza,...) eta planak garatzea.
Kultura, kirola, hezkuntza zerbitzuak eskaintzen dituen eraikinen kudeaketa publikoa izatea	Proiektuaren iraupena denboran luzatzea.	Proiektu guztia leku berean garatu ordez, eremu desberdinetan dispersatzea	Kontratututako langileak euskaldunak izatea	Doako euskalduntzea bermatu.
Zerbitzuaren kudeaketa pribatua izanez gero udalarekin hitzarmenak egitea aurreikustea	Tokiko beharretara neurritutako ekipamenduak aurreikusi	Ekipamenduak beste ekipamendu osagarri batzuetatik gertu egotea eta denen koordinazioa, eraginkortasuna eta gizarte-kohesioa ahalbidetzen duen sarea osatzea proposatu	Hizkuntza erabilerarako irizpideak finkatzea, euskarari lehentasuna emanez.	Euskalduntzeko konpromisoa bermatu
Tokiko beharretara neurritutako espazio publikoak aurreikustea	Ekimenak garrantzi naturala, historikoa edota kulturala duten lekuak babestea edo hobetzea	Enpresa berriak eraikiko badira euskararen hauskortasun txikiko guneetara bideratu	Euskara-planak edo ziurtagiria duten hornitzaileak lehenetsi	Etorri berrien euskalduntzea eta beharrezko errefortzua bermatu

PROIEKTUAREN/JARDUERAREN IZAERARI LOTUTAKOAK	PROIEKTUAREN/JARDUERAREN DIMENTSIOARI LOTUTAKOAK	PROIEKTUAREN/JARDUERAREN LEKUKOTZEARI LOTUTAKOAK	HIZKUNTZA IRIZPIDEEI LOTUTAKOAK	NEURRI OSAGARRIAK/ARINGARRIAK
Ekimenak tokiko lan-aukerak sustatzea	Espazio publiko irekiak beste instalazio batzuk inguruan izatea,	Jarduerak bisitariak hauskortasun txikiko guneetan jasotzea aurreikustea	Lehen hitzetik euskaraz egitea.	Harrera-planak

	adibidez, dendak, liburutegia, kultur etxea, ikastetxeak eta gizarte kohesioa sustatzeko komunitate-zentroak			
Sortuko diren lanpostuak bertakoek betetzeko neurriak ezartzea helburuen artean	Espazio publiko irekiak eremu askotan dispersatzea aurreikustea		Pasaia linguistikorako irizpideak finkatu, euskarari lehentasuna emanez eta erdarak beharrezkoa den kasuetan soilik erabiliz	Mintzapraktika programa garatua
Helburuen artean askotariko enpleguak lortzeko aukerak sustatzea	Tokiko beharretara neurritutako lanpostuak sustatzea		Bertako toponimia erabili	Ziurtagiria eskaini edo euskara-planak garatu
Herritar-talde guztientzako lan aukerak bultzatzea	Bisitari kopuru jasagarria sustatzea: turismoa hizkuntz gutxituetako herrialdeetan sustatzea...		Komunikazio irizpideak finkatu, euskarari lehentasuna emanez	Sentsibilizazio /motibazio kanpainak
Helburuen artean, tokiko enpleguarekin lotutako prestakuntza sustatzea			Euskarazko eskaintza edo eskaintza elebiduna bermatu	Itzulpen zerbitzuak eskaini
Ekonomia aniztasun handiagoa egotea bultzatzea				Irizpideak betetzen ez direnerako isunak
Bertako kultura, hizkuntza, ohiturak sustatzea helburuen artean				
Erabiliko diren irudi leloak bertako ezaugarriei lotutakoak izatea sustatzea				
Ekimenak bertako kultur sorkuntza sustatzea helburuen artean				

9. NEURRI ZUZENTZAILE OROKORRAK.

9.1. PLANIFIKAZIOAN.

1. Egungo hizkuntza irizpideak aztertu eta hizkuntza irizpideak udaleko etxebizitza publikoen planean integratzea.
2. Funtsezko alderdien azterketan azalarazi den gisan, hizkuntzan eragin zuzena izango duten parametroak esplizituki adierazi planean; besteak beste, etxebizitza eraikin berrietan atari bakoitzeko bizilagun-kopurua zaintzea (bizilagunek elkar ezagutzeko eta elkarrekin harremanean jartzeko), edota espazio publiko irekiei askotariko erabilera ematea eta adin nahasketa bultzatzea.

9.2. OBRA / ETXEBIZITZAK EGITERAKOAN.

1. Egungo hizkuntza irizpideak aztertu eta hizkuntza irizpideak udaleko etxebizitza publikoen planean integratzea.
2. Funtsezko alderdien azterketan azalarazi den gisan, hizkuntzan eragin zuzena izango duten parametroak esplizituki adierazi planean; besteak beste, etxebizitza eraikin berrietan atari bakoitzeko bizilagun-kopurua zaintzea (bizilagunek elkar ezagutzeko eta elkarrekin harremanean jartzeko), edota espazio publiko irekiei askotariko erabilera ematea eta adin nahasketa bultzatzea.
3. Hirigintzari/Etxegintzari lotutako lehiaketa publikoetan hizkuntza irizpideak kontuan hartzea.
4. Obra lizentzia ematerakoan hizkuntza irizpideak txertatzea.
5. Irizpideen artean izapideak udalarekin euskaraz egitea gehitzea.
6. Obra arduraduna euskalduna izatea zehaztea lehiaketa publikoetan.
7. Lehiaketan euskararen inguruko ziurtagiriren bat daukaten enpresak lehenestea.
8. Udalak sustatutako etxebizitzaren inguruko iragarkiak eskualdeko/herriko komunikabideetan jartzea.

9.3. ETXEBIZITZAK EGIN OSTEAN.

9. Udalak sustatutako etxebizitzetan hizkuntza paisaiaren inguruko irizpideak mantentzea bideratu. Sustapen pribatuko etxebizitzetara hizkuntza paisaiaren gomendio irizpideak helaraztea.
10. Merkataritza establezimenduak irekitzen direnean hizkuntza pasaia eta zerbitzua euskaraz izan dadin bermatzeko neurriak hartzea: hitzarmena sinatuz, euskarazko zerbitzua eskainiz...
11. Herriko merkataritzara begira gomendioak eta sariketa sistema bideratu hizkuntza ohiturak jakin batzuk sustatzeko.
12. Finka-administratzaile euskaldunak hartzea gomendatzea.
13. Bertako toponimia erabiltzea etxe/kale/plaza izenak ezartzeko.
14. Etxebizitzan erroldatzen direnean udaleko euskara sustatzeko lan ildoetan sartzeko aukera eskaintzea.
15. Etxebizitza eskuratuko dutenei euskaraz ikasteko laguntzen berri ematea.
16. Berbalagun edo mintzalagun gisakoa antolatu oso erdaldunak izan daitezkeen guneeetan. Neurri zuzentzaile hauei jarraipena egiteko Jarraipen Batzordea osatu eta jarraipenerako sistema zehaztea komenigarria da. Jarraipen Batzorde hori honakoek osatuko dute: Beasaingo Euskararen alde egiten duten bilguneen ordezkariak eta Udaleko ordezkaria.

9.4. BEASAINGO HAPOTIK.

Beasainen euskararen erabilera gero eta handiagoa izatea da helburu nagusia eta, horretarako, jarduera-irizpide hauek proposatzen dira:


17. Euskararen erabilerak duen erabileraren bilakaeraren behatoki bat ezartzea.
18. Euskararen ondare-balioa ezagutaraztea eta zabaltzea.



19. Etorkinak alfabetatzeko eta integratzeko hitzarmenak egitea dagokien erakundeekin.
20. Kultura-arloan egiten diren premien programetan, tokiko sistemen sareko zuzkidura publikoetarako espazioen barruan eskala txikiko irakaskuntza-zentroen edo -gelen aurreikuspena proposatzea.
21. Azken irizpide hori Trenbidearen Zabalgunean aurre ikusten diren ekipamendu soziokulturaletan ezarri beharreko beharren programari aplikatzea.

Neurri zuzentzaile hauei jarraipena egiteko Jarraipen Batzordea osatu eta jarraipenerako sistema zehaztea komenigarria da. Jarraipen Batzorde hori honakoek osatuko dute: Beasaingo Euskararen alde egiten duten bilguneen ordezkariak eta Udaleko ordezkaria.

Sinadurak:


ARAUDI
aholkularitza juridikoa
lurralde planingintza
ingurumen
Portuetxe kalea 45-C, 1. solairua, 1. bulegoa
20018 Donostia (GIPUZKOA)

Izp. **Raoul Servert**
ARAUDI SLP


EKAIN

Izp. **Juan Landa**
EKAIN


SABAI arkitektoak sl

Izp. **Agustín Errea**
Sabai arkitektoak SLP

